


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Eguaztena / 2002ko martxoaren 27a / 490. zenbakia



**Udal
aurrekontua
2002**

BERGARAKO GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako



AGIRRE MARGOAK

Artzamendi 2,
5-D
943 76 53 82

- Orotariko pintaketa lanak

ARISTEGI-TOLA



ITURGINTZA

Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak



Aribar pol. C-4,
S. Juan auzoa
943 76 02 78
670 422 059
F 943 76 02 78

- Pintura
- Dekorazioa



Manufacturas
AFA-BI, S.L.

San Lorentzo
z/g,
943 76 50 92
943 76 21 59
F 943 76 02 65

- PVC
- Aluminioa
- Veka sistema



EGUREN INTURAK

Irala kalea z/g
943 76 33 01
F 943 76 33 01

- Orotariko pintaketa lanak

Iturkintz Berri S.L.

Amillaga 1
943 76 28 04
F 943 76 36 58

- Bainurako altzariak
- Era guztietako kalefakzio instalakuntzak

J.M. IZAGIRRE

Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

Antonio Bourzas

Zurradero 8, 1-A
943 76 06 12
689 805 802

- Margoak eta dekorazioa



MATXIATEGI S.L.

ELEKTRAGINTZA

Zurradero 8
943 76 19 94

- Material eta etxeko tresna elektrikoak
- Instalazioak
- Hari musikala

Andres margoak

Zubiaurre 19
Ozaeta 9
669 887 814
669 887 815

- Pintura dekoratiboa

BERGARA

Margoak

Amillaga 1,
1. pabilioia
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32

- Orotariko pintaketa lanak

fontaneria
Larrañaga, s.l.

Matxiategi 16
943 76 29 97
F 943 76 04 22

- Diba: bainuaren diseinu osoa
- Gas instalazioa
- Berogailuak



Matxiategi 1
943 76 99 91

- Zeramikak
- Gresa
- Marmola
- Harri naturala



UR

kristaldegia

Martoko 1-3
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikoa

E izarra

elektrizitatea

Zubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak

ATREBENTZIAEZPADA/ Ze plan daukazu Aste Santurako?



LOREDANA SERBAN
29 urte

Ez gara inora jungo. Hemen geratuko gara eta imajinatzen dot eguneko irteerak egingo ditudugula. Batez be, mendira jungo gara, eguraldixak lagunduz gero, asko gustatzen jaku-eta.



RAFAEL ROBLA
32 urte

Oporretan jungo gara. Eguen goizian urten eta lau edo bost egun emongo ditudugu Leonen. Familixa gehixena daukat hantxe, eta haretxekin egotera jungo gara hara.




MANUEL MORAL
61 urte

Ez naiz inora jungo, oporrik ez daukat-eta. Lan egittia tokau jat aurten. Iaz izan nittuan nik oporrak Aste Santuan, eta aurten, beste lankide batzuri hartzia tokatu jakue.



INMA KORTABARRIA
37 urte

Kanpora, behintzat, ez noia. Gelditzen naiz, eta hara eta hona ibiliko gara seguruenik. Eguraldi ona egitten badau, aprobetxau egingo dogu egun osoko irteerak egitteko.



IÑAKI MONDRAGÓN
17 urte

Ez naiz kanpora jungo. Bergaran geldituko naiz. Eta ez dakit ze plan egingo ditudan. Bueno, Elorrixora igonal, kontzerturen bat ikustera, baina bestelakorik ez dot uste.



SILVIA PILAR
27 urte

Gure amaren herrira jungo naiz, Burgosera. Normalian asteburuero juten naiz hara, eta Aste Santuan be horixe egingo dot. Hantxe emongo ditudut Aste Santuko oporrak.

TXALOKETATXISTUAK



TXISTUAK ZEBRABIDEETAN OINEZKOA NAGUSI Herriko kaleetan zehar oinezkoek izan beharko lukete lehentasuna eta ez autoek. Hala ere, zenbatek errespetatzen dugu hori? Zebraideetan ere oinezkoa da, normalean, autoa igaro arte itxaron behar izaten duena, eta ez alderantziz. Gidari oso gutxi dago oinezkoa ikusi eta zebraidean geratu egiten dena. Badugu, ba, ikasteko garaia. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 6

Udal aurrekontua

Astelehenean, 2002. urteko udal aurrekontua onartu zuen Udaltzarak osoko bilkuran.

KIROLAK / 9

Gazte mailako futbola

Real Madril eta Athletic gazte mailako taldeak, aurrez aurre zapatuan Agorrosinen.

KULTURA / 10

Erramu Zapatua

Jende ugari eta jai giroa nagusi zapatuan. Txorimalo Lehiaketan 30 taldek hartu zuten parte.

ASTEKODATUA

4,5

MILIOI EURO INGURU INBERTITUKO DITU UDALAK

Lau milioi eta erdi euro inguru inbertituko ditu aurten Udalak; besteak beste, kirolgune berriak, gaztetxeak, kanposantuan, argiteria publikoan eta etxebizitzetarako lurrak erosten.

BESTEKEESANA

“

Gaur egun, ez du ia inork defendatzen arrazakeria biologikoa. Arrazakeria azalaren koloreagatik

gertatu beharrean, fundamentalismo kulturala jasaten ari gara gaur egun. Hizkuntzan aurreiritziak daude oraindik, aldatzea konplexua da; hizkuntza matxista aldatzea moduan izango litzateke. Dena dela, "koloredun pertsona" esateak ez du zentzurik. Kontua da "beltza" zein tonutan esaten den. Eurek esaten didate, brometan: "Ni kolorekoa banaiz, zu zer zara, gardena?" Zuek kolore zuri-horixka duzue, gaixo zaudetenean zurbildu egiten zarete; gorritzen zaretenean, gorri; eguzkiak ematen dizuenean, beltzaran. Eta guri kolorekoak garaia esaten diguzue? Babo hutsak zarete.

AGUSTIN UNTZURRUNTZAGA
Deia/02-03-24

BERAIEKDIÑOË/ Fermin Lazkano



E-Debagoiena asmoaz bi hitz

E-DEBAGOIENA egitasmoa, laburtuta, zera da: gure eskualdea, bere osotasunean, kable bidez lotu eta behar diren azpiegiturak ipini eta gero teknologia berrien abantailak guztiongana ekarri eta ustiatzea. Informazio eta teknologia berrien gizarterantz urrats erabakiorra egitea, eskualdearen hazkunde ekonomiko-sozialean berebiziko eragina izateko.

Enpresa-taldeak, Udalak, MU eta beste hainbat eragile planaz hitz egiten jarri ziren. Aste honetan sinatu dute lehen asmo-adierazpena.

Hazkunde ekonomiko-soziala dugu helburu. Hazkunde ahalbidetzen duten faktoreen artean, produktibitatea handitzea, inbertsioak etorkizun oparoagoko sektoreetara bideratzea eta ezagutza handitzea.

Debagoieneko egitasmo hau testuinguru horretan dago. Baina, nola ezkonduko dira enpresen, Udalen eta bizilagunen interesak? Noren jabetza

pean eta nork kudeatuko ditu sortuko den kapital fisikoa eta bertatik banatuko diren edukiak? Zein prezioetan?

Aukera galanta dugu guztien interesak, eta sortuko diren azpiegituren erabilpena modu berritzailean kudeatzeko. Nagusi den kapitalismo

"Gure eskualdeak E-DEBAGOIENAREN kudeaketan sendoa, irekia eta progresista beharko luke"

neoliberalaren printzipioei aurre eginez interes publikoen nagusitasuna bermatzeko. Okerra litzateke kable-sarearen jabegoa Euskaltele- na izan barik herritarrena ere izatea? Eta egitasmoaren garapena enpresa

pribatuaren esku utzi barik erakunde publikoen eskutik ere joatea? Eta proiektuaren behin-betiko kudeaketan herritarrek ere parte hartzea? Badi- ra eraginkortasuna, seguritate eta herritarren interesak merkatuaren beharretara egokitzen dituzten formula juridikoak. Azkenean, gure eskualdeak E-DEBAGOIENAREN anto- laketa, garapen eta kudea- ketan ere sendoa, irekia eta progresista izan beharko luke.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUAZTENA, 27**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUENA, 28**
PUY, Barrenkale 25. 943 76 16 87
- EGUBAKOITZA, 29**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- ZAPATUA, 30**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- DOMEKA, 31**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 1**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- MARTITZENA, 2**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emalleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---------------------|--------------------|
| Santa Marina | Domekak: 10:30. |
| Domekak: | Labegarieta |
| 11:30, 13:00. | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | San Lorenzo |
| Lanegunak: 19:15. | Zapatuak: |
| San Pedro | 20:00. |
| Domekak: | Angiozar |
| 09:30, 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak eta | 11:30. |
| lanegunak: 19:00. | Moja |
| Sierbak | Zaharrak |
| Lanegunak: 19:30. | Lanegunak: 8:00. |
| Osintxu | Mizpirualde |
| Domekak: 12:30. | Lanegunak: 11:45. |
| Zapatuak: 19:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Elosu | Antzuola |
| Domekak: 10:30. | Domekak: |
| Ubera | 09:00, 11:30. |
| Domekak: | Zapatuak eta |
| 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| San Juan | Uzarraga |
| Domekak: 11:00. | Domekak: 10:00. |
| Elorregi | |
- URTE-MEZAK**
Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
San Pedro
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

IMPRECIO BAZKIDE OHIEN AFARIA APIRILAREN 20AN
Impreci kooperatibako bazkide ohiek afaria egingo dute apirilaren 20an Zabala jatetxean. Izenematea Zabalan, Mujika jantzi dendan edo Zubietako Arantxa dendan, apirilaren 13ra arte.

1951KO KINTOEN BAZKARIA
Gipuzkoako 1951ko kintoek bazkaria egingo dute apirilaren 14an Ordiziako Martínez jatetxean, 14:30ean. Aurretik, 12:30ean, hildakoen omenezko meza izango da Jasokunde Amabirjinaren parrokiari. Izenematea Martínez jatetxean (943 88 06 41).

1964AN JAIOTAKOAK
1964an jaiotako bergararren afaria apirilaren 20an Tartufo jatetxean. Izenematea (10 euroko depositua) San Martin plazako kioskoan edo 607 410 409 telefonozan (Peli Narbaiza).

XIPIZARO LUDOTEKA
Xipizaro ludotekak aditzera eman duenez, uztailleko udalekuan begirale lanetan ibiltzeko interesa dutenek apirilaren 8tik 20ra eman beharko dute izena, Aranzadi Ikastolako lokalean, 17:15etik 19:30era. Argibideak 943 76 23 76 telefono zembakian.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO JARDUERAK
Aste Santua dela eta, Kartzela apirilaren 4tik 7ra izango da zabalik, 16:00etatik 20:00etara.

ARRATERA IRTEERA
Apirilaren 27an eta 28an, Arratera irteera izango da. Izena emateko epea apirilaren 22an bukatuko da. Plaza mugatuak. 27 euro.

URBANOENORDUTEGIA


San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Mansa aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildoki okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubietako, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Agorrosingo kanpoko igerilekuen egokitze lanak

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hartutako erabakietara egokitze lanak, hainbat lan egin behar izan zituzten kanpoko igerilekuetan. Aurreko urtean amaitu barik geratu ziren lanak apirilaren hasi zituzten, udari begira. Denera, 127 milioi pezetako aurrekontua izan zuten lan horiek.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Mozkotia”

Pertsona txikia eta zabala.
-Errezill aldeko mozkote batekin ein juan burrukan.



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

| | |
|---------------------------------------|--------------|
| MINIMOA Domeka, 24 | 4 °C |
| MAXIMOA Eguaztena, 20 | 26 °C |
| ASTEKO EURIA (l/m²) | 0 L |

| | Max. | Min. | Euria |
|-----------------|-------|------|--------------------|
| Eguaztena, 20 | 26 °C | 6 °C | - l/m ² |
| Eguena, 21 | 24 °C | 6 °C | - l/m ² |
| Egubakoitza, 22 | 24 °C | 6 °C | - l/m ² |
| Zapatua, 23 | 23 °C | 4 °C | - l/m ² |
| Domeka, 24 | 20 °C | 4 °C | - l/m ² |

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOFILMAK

‘EN TIERRA DE NADIE’

ZUZENDARIA: DANIS TANOVIC. AKTOREAK: BRANKO DJURIC, RENE BITORAJAC.

HARIA. Film bosniar honek, besteak beste, gidoi onenaren saria jaso zuen Cannes-en, eta Oscarretan ere saritu dute. Balkanetako gerraren inguruan ikuspegi bitxia eskaintzen du.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Eguenean, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; eta zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean.

PUNUAZIOA: ●●●●●

‘MOHTMAN, LA ULTIMA PROFECIA’

ZUZENDARIA: MARK PELLINGTON. AKTOREAK: RICHARD GERE, LAURA LINNEY.

HARIA. John Klein kazetaria lurjota dago bere emaztearen heriotzagatik. Emazteak hil aurretik egindako moduko marrazki batzuk aurkituko ditu herri baten.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; eta martitzenean, 19:30ean.

PUNUAZIOA: ●●●●●

‘CORAZONES EN ATLANTIDA’

ZUZENDARIA: SCOTT HICKS. AKTOREAK: ANTHONY HOPKINS, HOPE DAVIS.

HARIA. Bobby Garfield-ek umetako oroitzapenak gogoratzen ditu. Amaren depresioak eta etxean izan zuten ostalari misteriozko burura etorririko zaizkio. Stephen King-en eleberri baten oinarrituta dago filma.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Astelehenean, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean.

PUNUAZIOA: ●●●●●

M MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25
BERGARA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
ONATI
943 78 24 13



Jarri lasai eta musikaz gozatu.

Musikaz blai, SOINUZ BLAI.

SOINUZ BLAI

- Eguenetan, 21:00etan
- Errepikapena egubakoitzean, 21:00etan
- Aurkezleak: **Maidar Albes** eta **Ugutx Usandizaga**

Goitb
Goiena Telebista



AURREKONTUAK/ Aurrekontuak EAJ-EAko eta Batasuneko zinegotzien oniritziarekin egin du aurrera

Udalak 17.584.131 euroko aurrekontua onartu zuen asteleheneko osoko bilkuran

MONIKA BELASTEGI

Udal aurrekontua onartu zuen Udaltzako astelehenean: 17,5 milioi euro inguru (2.900 milioi pezetatik gora), hain justu. Aurrekontuak EAJ-EAren eta Batasunaren aldeko botoekin egin du aurrera. PSE-EEko eta PPko zinegotziak ez ziren osoko bilkuran izan.

Iazkoarekin alderatuta, aurfengo udal aurrekontuak %6,3 egin du gora: 1.031.331 euro, hain justu ere. Era berean, inbertsioetara bideratuko duten diru kopuruak ere gora egin du: iaz baino 107.958 euro gehiago izango ditu Udalak inbertitzeko.

Finantza zamari dagokionez, iaz baino zorpetze maila txikiagoari egin beharko dio aurre Udalak, 16 puntukoari hain justu ere; iaz baino 1,20 gutxiago.

Gastuen kasuan, gastu arruntek (pertsonal gastuak, erosketa arruntak, interesak eta transfrentzia arruntak) hartzen dute Udaleko aurrekontuko zati handiena: 11.756.881 euro, hain zuzen ere.

Inbertsioei dagokionez, 4.468.208 euro izango ditu Udalak inbertsioetarako. Eta inbertsio garrantzitsuenak honako hauek izango dira, besteak beste: urbanizazio lanak, gaztetxea, auzoetako ekipamendua, hirigintza garapenerako eta etxebizitzetarako lursailen erosketa eta igerileku berriak.


Horrekin batera, aurrekontuetan jaso diren beste partida batzuk ere azpimarratu zituen Victoriano Gallastegi alkateak aurrekontuen azalpena emateko orduan. Batetik, Xiberoa 2010 garapen egitasmorako oraindik zehaztu gabeko diru kopuru bat

aurreikusita dagoela adierazi zuen. Bestetik, auditoriorako 300.000 euroko diru kopuru ere izendatuta dagoela aurreratu zuen. Azkenik, beste partida baten berri ere eman zuen: herrian hutsik dauden etxebizitzak errentan hartzeko bulego bat irekitzeko proiektuaren ingurukoa, hain justu ere.

ADOSTUTAKO AURREKONTUAK

Asteleheneko osoko bilkuran onartu zituzten aurrekontuak. Gobernu taldearen eta Batasunaren oniritziz egin zuten aurrera udal aurrekontuek. Alderdi Sozialistako eta Popularrako zinegotzi bana ez ziren osoko bilkuran izan.

Batasuna taldeko Jesus Mari Garitanok bilkuran azaldu zenez, "nahiz eta berandu ibili diren, aurrekontuak lantzeko modua normaltasun baten barruan egin da eta gurekin ere kontatu du Udaleko Gobernu taldeak". Edozelan ere, Garitanok gehitu zuenez, Batasunak aurrekontuari baietzkoa eman izanak ez du esan nahi ados daudenik ur zerbitzua Ur Partzuergoan sarztearekin.



Inbertsioen atalean, igerileku berriek hartu dute diru kopuru handien: 600.000 euro inguru, hain zuzen ere.

2002rako aurrekontua

| | |
|----------------------------------|--------------|
| Udala: | 17.584.131 € |
| Mizpirualde egoitza: | 2.293.828 € |
| Udal Euskaltegia: | 378.298 € |
| Bergarako Bihargintza SA: | 68.854 € |

UDAL AURREKONTU OSOA:
19.560.622 €

Aurrekontua, batzordeka

| | |
|---------------------------|-------------|
| Auzoak | 580.690 € |
| Ingurumena | 1.025.540 € |
| Zerbitzu orokorrak | 4.255.370 € |
| Informatika | 147.600 € |
| Kultura | 1.997.610 € |
| Kirolak | 1.053.610 € |
| Hirigintza | 1.379.940 € |
| Hezkuntza | 486.270 € |
| Gizarte Ongizatea | 1.806.950 € |
| Pertsonala | 4.333.950 € |
| Euskara | 516.600 € |

Inbertsio aipagarrienak

| | |
|------------------------------|-------------|
| Kirolgune berria | 600.000 € |
| Urbanizazioa | 480.000 € |
| Gaztetxea | 420.000 € |
| Arostegi etxea | 410.000 € |
| Argiteria publikoa | 120.000 € |
| Kanposantua | 180.000 € |
| Lursailen erosketa | 365.000 € |
| Hirigintza | 300.000 € |
| Auzoetako ekipamendua | 120.000 € |
| Beste batzuk | 1.473.200 € |
| GUZTIRA | 4.468.208 € |



San Antonioko etxeak, zozketatuta

San Antonioko bederatzi etxebizitza sozial zozketatu zituzten eguenean osoko bilkuren aretoan. Eraikiko dituzten hiru blokeetako lehenengoari dagozkio bederatzi etxebizitzok. Blokeak, berez, hamazortzi etxebizitza ditu, baina gainerako bederatziak berriak egiteko bota zituzten zaharretako jabeen esku utzi dituzte.

Hogeita zortzi lagunek hartu zuten parte zozketan, eta notarioaren eta hainbat herritarren aurrean egin zuten.

LABUR

Langabeendako Industria Elektrikari ikastaroa antolatu du Enplegu Zerbitzuak

Ikastaroak apirilaren 3an hasi eta uztailearen 19ra arte iraungo du. Gizona eta emakumeei zuzenduta dago, eta parte hartzeko baldintza bete beharko dira: 18 urtetik gorakoa izatea eta INEMen izena emanda edukitzea. 15:00etatik 19:00etara izango da, Miguel Altuna Institutuan, eta izena emateko epea apirilaren 3an amaituko da. Informazio gehiago, 943 77 91 65 telefonoan.

Pazkoetan txosnak jartzeko baldintzak eta eskaera epea zabaldu ditu Udalak

Pazkoetan txosnak jarri nahi izanez gero, zabalik dago eskaera egiteko epea dagoeneko. Horixe dio Bergarako Udaletik igorritako ohar batek.

Eskaera orriak eta baldintzak udaletxeko idazkaritzan daude, eta interesa duten guztiak pasa daitezke handik horiek jasotzera. Eskaera egiteko epea datorren apirilaren 20an amaituko da, arratsaldeko ordu bat eta erdietan.

Erregetxo plazako eraikina eskaini dio Udalak Aranzadi ikastolari

MONIKA BELASTEGI


Udalak hitzarmena sinatu du Ortuibar eta Mauricio Arregi konstruktoreekin, Miguel Altuna erdia Mariaren Lagundi-ko eraikinagatik trukatzeko. Udalak Aranzadi ikastolari eskaini dio mojen eraikina.

Eguenean sinatu zuten Udalak eta Ortuibar eta Mauricio Arregi enpresa eraikitzaileek trukerako hitzarmena. Horren arabera, Udalak Miguel Altuna zaharreko zatia (pilotalekutik hurbilen dagoena) eman die bi enpresei. Horiek, ordainetan, Mariaren Lagundia-rena zen Erregetxo plazako eraikina eman diote Udalari.

Hitzarmenak jasotzen duenez, enpresa eraikitzaileek gehienez 20 etxebizitza eraikiko dituzte Miguel Altunako eraikinik zaharrenean. Beste zatia oraindik ere Eusko Jaurlaritzaren esku dago.

SEMINARIOTIK ERREGETXO PLAZARA

Hitzarmena sinatzeko ekitaldian, Gallastegi alkateak aurreratu zuenez, Udalaren esku geratu den Erregetxo plazako eraikina Aranzadi ikastolari eskaini diote. Gallastegik azaldu zuenez, hitzar-



MONIKA BELASTEGI

Enpresa eraikitzaileek eta Udalak eguen goizean sinatu zuten hitzarmenak

mena sinatu aurretik bilera izan zuen Aranzadi ikastolako zuzendari eta gurasoen ordezkariekin, eta aipatutako eraikinean kokatzeko aukera eskaini zien.

Kontua da Udalak Errege Seminarioa bere esku hartu nahi duela, baina horretarako Aranzadi ikastolak handik atera beharra dauka. Aurretiaz Udalak hartuta zuen konpromisoa Estatutuekin Aranzadi ikastolari irtenbidea aurkitzeko. Eguenean sinatutako hitzarmenarekin,

badu Udalak Aranzadiri eskaintzeko lokala.

Aranzadik bere aldetik, ez du baloraziorik egin Udalak eman dion aukeraren gainean. Patricia Urrutia Aranzadiko zuzendariaren esanetan bilera bakarra izan dute Udaleko ordezkariekin eta "oraindik ez dakigu zein baldintzatan utziko diguten eraikina. Baldintzak zehazten joan ahala hartuko dugu erabakia. Momentuz, bilerak egiteko egutegia osatzeko konpromisoa hartu dugu".



Priederen hilketa salatzen bilkura

Pasa den egubakoitzean, hilak 22, hainbat herritar eta udal agintaririk ordu laurdeneko elkarretaratzea egin zuten San Martin plazan ETak Orion tiroz hildako Juan Priede zinegotzi sozialistaren hilketa gaitzesteko asmoz.

Eguerdian, bazkaldu ondoren, Orioko taberna batean zegoela hil zuten Priede, hiru tiro eginda. Hirurogeita bederatzita urte zituen eta Orioko Udalean zegoen alderdi sozialistako zinegotzi bakarra zen, duela bost urtetik.



Saihesbideko lan istripuak salatzen

Ekialdeko saihesbidean lanean zebilela hil zen gaztearen heriotza salatzen elkarretaratzea egin zuten hainbat lagunek obretatik gertu. ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek deitu zuten.

Eguaztenean, hogeita bost urteko errenteriarrek galdu zuen bizia. Saihesbidea eraikitze lanetan erabiltzen duten auto bat konpontzen ari zela, deskarga elektriko bat jaso eta horrek hil zuen. Abenduan 22 urteko beste gazte bat hil zen hura ere saihesbideko lanetan.

Zuntz optikoa kanalizatzeko lanak hasi dituzte Irizarren

MONIKA BELASTEGI

Zuntz optikoa ezartzeko kanalizazio lanak egiten hasi dira Irizar kalean. Lanak hortxe hasi badira ere ia herri guztiko lurra altxatuko dute beharrezkoak diren hodiak sartu ahal izateko.

Irizar kaleko lurra jaso dute azken bi asteetan. Kontua da zuntz optikoaren kanalizazioa egiten dabiltzala, hau da, zuntza igarotzeko hoditeria dabilta sartzen lur azpian.

Momentuz lanok Irizarra mugatzen diren arren ia herri guztian sartuko dituzte aipatu-

tako hodi horiek: alde batetik, Ibarra kaleko azken etxeeraino hedatuko da, beste aldetik, Burdinateko etxeeraino, eta Poligonoa eta San Lorentzoraino ere hedatuko da.

HERRIA BOST GUNETAN BANATUTA

Kanalizazioa egiteko, herria bost gunetan banatu dute. Irizar kaleko lanak, esaterako, laugarren guneari dagozkio, eta gune honetan sartzen dira alde zaharreko kaleak eta baita erdigunekoak ere. Gainerako lau guneak honakoak izango dira: Ibarra ingurua, Poligono ingurua, Ibaiondotik Santa Marinarainoko tartea, San Lorentzo eta Zubieta aldea.



KORTA-ZAR Txokolategia

OHARRA BEZERO GUZTIOI
Aurrerantzean, astelehenean eguenera 17:00etatik aurrera zabalduko dugu.

Egubakoitz eta asteburuetan ohizko ordutegia.

Ongi etorriak denok!

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35




Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67



OSASUNAZ GEHIAGO DAKITE

Joan den astelehen arratsaldean izan zuten osasunaren autogestio ikastaroko azken saioa. Bestetan baino jende gutxiago batu zen egun horretan, baina hogeit bat lagunek parte hartu du astero-astero. Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatu du ikastaro hori, eta pozik azaldu dira izan duen erantzunarekin, baita ikastaroa eskaini duten Sumendiko kideak ere. Hemendik aurrera, hortaz, nor bere osasuna gestionatzeko moduan daude.



IZAROK "BOTEA" ERAMAN ZUEN

Euskal Telebistako bigarren kateko *Date el bote* lehiaketan parte hartu zuen Izaro Aperribai bergararrak. Aste osoko lehiaketa izaten da, eta egubakoitzera arte osok ere eraman ez zuen arren, egubakoitz eguerdian, sorpresa galanta eman zigen. Aste osoko potea eraman zuen Izarok. Eta orain, zer egingo duen diru horrekin guztiarekin? Liverpoolera joango ei da oporrak hartzen dituenean. Zorionak, bada, Izaro, eta ondo ibili!

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Usoa Pub

943 76 38 57
Irala 1. Bergara

PINTXO eta BOKADILLOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

943 76 20 61
BERGARA

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



ARTXIBOA

David Urbinak zuzentzen duen taldeak apirilaren 13an izango du igoera faseko hurrengo partidua.

SASKIBALOIA

Bergarako senior taldeak Aldapeta liderrari irabazi zion, 66-56

Lehen Maila Probintzialera igotzeko ligaxkan laugarren dira bergararrak

EDU MENDIBIL

igoera faseko ligaxka amaitzeko lau partidu besterik ez zajo geratzen Bergarako senior taldeari. David Urbina entrena-tzailearen esanetan, "igoera lortzeko, hiru partidu irabaztea beharrezkoa izango da".

Bergarako taldeak garrantzi handiko garaipena erdietsi zuen Aldapeta liderraren aurka. Ligaxka-kako partidu onenetakoa jokatu zuen David Urbinaren taldeak. Honako hauek izan ziren Bergarako saskiratzaileak: Jesus

Morais (19 punto), Gorka Eraña (18), Ugutz Basauri (14), Mikel Etxeberria (6), Jorge Morais (2), David Urbina (2), Iban Herzog (5) eta Gorka Lagoma.

Bergarak hamar partidu jokatu ditu igoera ligaxkan, eta horietatik, bost irabazi eta gainerako bostak galdu egin ditu. Zapatuan Elurteren aurka jokatu beharreko partidua bertan behera geratu zen, Elurtekoak ez zirelako aurkeztu. Horren ondorioz, 20-0 irabazi zuen Bergarak. Sailkapenean laugarren dira momentu honetan mahoneroak, eta kontua da lehendabiziko hirurak igoko

direla mailaz. David Urbinaren esanetan, "geratzen diren lau partiduetatik, hiru irabaztea beharrezkoa zaigu".

INFANTILAK, BIKAIN

Infantil taldeak 60-48 galdu zuen zapatuan Donostiako Askatuak taldearen aurkako lagunarteko partidua. Iker Barberoren eta Igor Urisabelen taldea denboraldi biribila egiten dabil. Ligan jokaturako hamar partiduak irabazi dituzte gaztetxo bergararrak. Aste Santuaren ostean, Tau taldearen aurka jokaturako dute, liga-koro hurrengo fasea gertatzeko.

Athletic-Real Madril gazte mailako futbol partidua zapatuan Bergaran

E.M.

Realak antolatzen duen gazte mailako txapelketaren barruan, Gazte Mailako Athletic eta Real Madril taldeak aurrez aurre izango dira zapatuan Agorrosinen, arratsaldeko bostetan.

Aurten ere, Realak partaidetza bikaina lortu du. Alde batetik, A multzoan Real Madrid, Yokohama Marinos talde japoniarra,

Athletic eta Gipuzkoako selekzioa izango dira, eta B multzoan Celta, Liverpool, Osasuna eta Realak. Bergaran, hortaz, A multzoko partidu interesgarrienetakoa ikusteko aukera izango dugu, zapatuan. Finala astelehenean jokaturako da, Anoetan.

Gipuzkoako selekzioarekin Bergarako jokalarik bi arituko dira: Eibarren ari den Julen Berraondo eta Bergarako gazte taldeko atezaina, Ander Sesma. Gipuzkoako selekzioko entrena-

tzailea Iñaxio Kortabarria Realeko jokalarik ohia izango da.

BERGARAK ZARAUTZI IRABAZI

Bergarako preferente taldeak 1-0 irabazi zion zapatuan Zarautzi Agorrosinen. Gorka San Vicentek egin zuen partiduko gol bakarra. Mahoneroak sasoi onean dira azkenaldian, eta sailkapenean bosgarren dira dagoeneko. Hurrengo jardunaldian, apirilaren 7an, Aloña Mendiren aurka jokaturako dute, Oñatin.

Muguruza-Gutiérrez bikoteak txapela jantzi zuen Beasainen

E.M.

Ander Muguruza eta Igor Gutiérrez pilotari bergararrak Udaberriko Txapelketa irabazi zuten aurreko zapatuan, Beasainen jokaturako finalean Egimendiri eta Altunari 22-13 nagusituta.

Ez zen partidua ona izan, baina Bergara KEko pilotariek Egimendi eta Altuna tolosarrak baino hobeto ibili ziren eta merezimendu osoz jantzi zuten txapela. Bestalde, Lander Ugarte eta Beñat Rezusta gaztetxoek Zaramagako txapelketa eskuratu zuten zapatuan, Soralezuko ordezkariak 16-9 irabazita.

Atzo, martitzena, partidu erabakigarria jokatzeko zuten Eiba-

rren Muguruzak eta Gutiérrezek. Debarroko finalerdietako norgehiagokan, joaneko partiduan 22-15 irabazi zioten bergararrak eibartarrei. Hortaz, finalerako sailkatzeko gutxienez 16 tanto egin beharra zeukaten Muguruzak eta Gutiérrezek.

DEBARROKO FINALAK, BERGARAN

Datorren domekan, apirilaren 7an, Debarroko Txapelketako finalak jokaturako dira Bergarako Udal Pilotalekuan. Bergara KEren sorreraren 50. urteurrena dela eta, finalak Bergaran izango dira aurten. Debarroko Txapelketa urtarrilaren 8an jarri zen abian, eta Debagoieneko eta Debarreneko pilota elkarteak izan dira lehian. Kadete, gazte eta senior mailako finalak izango dira.



ARTXIBOA

Muguruzak eta Gutiérrezek Udaberriko Txapelketako finala irabazi zuten.

Senior eskubaloi taldeak erraz irabazi zion Egialderi

E.M.

Bergara KEko senior eskubaloi taldeak 29-22 irabazi zion zapatuan Legazpiko Egialde taldeari, Bigarren Maila Nazionalera igotzeko ligaxkan. Edu Orgaz mutilek oso partidu ona egin zuten.

Lehen zatia parekatua izan zen. Atsedenaldira 11nako berdinketarekin joan ziren bergararrak eta legazpiarrak. Bigarren zatian, ostera, Bergarak hobeto jokatu zuen, Edu Orgaz entrenatzailearen ustez: "Lehen zatian ikusitako hainbat akats zuzendu genituen, eta bizpahiru goleko aldea lortu ondoren, erosoago jokatu genuen handik aurrera. Jokalariek gorputzaldi onean direla azaldu zuten, eta legazpiarrak behera etorri ziren amaieran".

Honako jokalarik hauek aritu ziren zapatuan Bergararen alde-tik: Ekain Sotil, Joseba Larrañaga (2 gol), Garikoitz Arregi (7 gol), Eugenio Cabo (2 gol), Ruben Sánchez (7 gol), Gorka Unamuno (gol bat), Ibai Goenaga (4 gol), Gorka Astaburuaga, Mikel Agirrezabal, Iban Orgaz (gol bat), Iker Retolaza (2 gol) eta Lander Juaristi (2 gol). Hurrengo partidua, oporretatik bueltan, Gasteizen jokaturako dute, Bimila taldearen aurka. Gasteiztarrek ligaxkako bi partidua galdu dituzte.

KIROLDEGIA ETA IGERILEKUAK

Aste Santuko oporrak direla eta, kiroldegia itxita egongo da egue-nean eta egubakoitzean. Agorrosingo igerilekuak, aldiz, zapatuan eta domekan zabalduko dituzte berriro, eta astelehenean itxita egongo dira.

Babieslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garihai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Jardun elkarteak antolatutako Txorimalo Lehiaketan 30 taldek hartu zuten parte

Primerako eguraldia eta inoiz baino jende gehiago Erramu Zapatuko Ferian

EDU MENDIBIL

Eguraldia lagun, sekulako jendetza bildu zen Erramu Zapatuko Ferian. Seminarioan, Fraizkozurin, Simon Arrietan, Irala kalean eta San Martin plazan postu ugari izan ziren, eta jai giroa izan zen nagusi. Inguruko herrietako bisitari asko izan genituen.

Erramu Zapatuan tradizio bihurtzen ari da azken urteotan Jardun elkartearen txorimalo lehiaketa. Aurtengoa VIII. ekitaldia zen eta 30 taldek (225 lagun inguruk) hartu zuten parte. 14 urtetik beherakoen artean izan zen partaide-tzarik handiena, 27 txorimalo hain zuzen. Lehen saria Eider Larrañagaren taldeak eraman zuen, bigarrena Amaia Azpeitia eta bere lagunak, hirugarrena Lorea Larrañagaren taldeak eta laugarren saria Jone Albenizen taldearendako izan zen. Sari gisa, Gasteizera patinatzerara joango dira apirilaren 13an. Bestalde, 14-65 urte bitartekoen artean partaidetzak behera egin zuen eta bi



MONIKA BELASTEGI

Era guztietako produktuak eta tresnak izan ziren jarritako postuetan.

txorimalo besterik ez ziren aurkeztu. Lehen saria, 90 eurokoa, Agurtzane Elortzak eraman zuen eta bigarrena (60 euro) Jardune-

ko Kuadrillategi taldeak Azkenik, 65 urtetik gorakoetan Mizpirualdeko taldeak hartu zuen parte, azken urteotako ohiturari eutsiz,



MONIKA BELASTEGI

Epaimahaiak txorimaloak oso landuta zeudela azpimarratu zuen.

eta 90 euroko saria jaso zuten. Asmatutako esaldi onenaren saria Mikel Alustizaren taldeak irabazi zuen, kamiseta bana esku-

ratuz. Esaldiak honela zioen: "Artzai honek bere ardiak zainduko dituen antzera, guk ere zainduko dugu gure euskera".

PENTEKOSTE JAIAK BERGARAN

2002



Pazkoko kartel irabazlea

Vanne Pedrazak irabazi du Pazkoko kartel lehiaketa. Duela bi urteko lehiaketan ere lehen saria eraman zuen Vannek Martin Murgizurekin batera landutako irudiari esker. Aurtun lehen saria eraman duen kartelak "Barrenkaleko giroa" izenburua dauka eta argazki zahar batean oinarrituta dago. Lehiaketara 11 lan aurkeztu ziren. Vanne Pedrazak 600 euroko saria eskuratu du. Alboan ikus dezakezuen kartela Pazkoko eskuko egitarauko azalean erabiliko da.


KULTURAPILULAK

Abdon Juaristi pintura lehiaketan parte hartzeko epea apirilaren 18ra arte zabalik

Mendekoste jaietan izango den zezenketa iragartzeko kartel lehiaketa deitu du Gure Ametsa elkarteak. Kartelen gaia zezenketa Berгарan izango da eta irabazleak 1.000 euro eta plaka oroigarria eskuratuko ditu. Lanak aurkezteko epea apirilaren 18an bukatuko da. Argibideak Kultura Etxean, 943 77 91 58 zenbakian.

Bergarako UNED ikastetxeak pintura lehiaketa deitu du 25. urteurrena ospatzeko

Begarako UNED ikastetxearen 25. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan pintura lehiaketa deitu dute. Edonork parte har dezake lehiaketan, eta hiru sari banatuko dira: irabazleak 3.000 euro jasoko ditu, bigarren saria 1.500 eurokoa izango da eta, azkenik hirugarrena 750 eurokoa. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 31n amaituko da. Argibideak UNEDeko idazkaritzan jaso daitezke, 943 76 90 33 telefono zenbakian.




POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

E, TXO!

HAINBAT KONTZERTU
GAZTETXEAN

Aste Santuan herrian geratuko direnendako, kontzertu eskaintza zabala antolatu dute gaztetxekoek.

Gaur bertan, 22:30ean, bi talderen kontzertua izango dugu: Gernikako Audience eta Donostiako Miztura taldeak arituko zaizkigu, hain zuzen ere.

Datorren domekan, martxoaren 31n, beste kontzertu bat izango dugu, laukoitza, kasu honetan. Honako talde hauek arituko dira domeka gauean, 22:30etik aurrera: Baalpegor, Brutal Death, Numen eta Suffering down.

EHU-K ANTOLATUTAKO
UDAKO IKASTAROAK

Euskal Herriko Unibertsitateak Udako Ikastaroen deialdia egin du. Eskaintza zabala izango da, eta ekaina eta iraila bitartean izango dira ikastaroenak. Apirilaren 13ra arte duzue ikastaroetarako bekak eskatzeko aukera. Matrikula epea, berriz, maiatzaren 2an zabalduko dute.

UDALEKUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak udalekuak antolatzen ditu urtero, eta aurtengo denboraldirako eskaintza plazaratu du dagoeneko.

14 eta 17 urte bitarteko neska-mutikoendako (1985. eta 1988. urte bitartean jaiotakoendako), maiatzaren 8tik 14ra egongo da izena emateko epea zabalik. Horretarako, izenemate orria bete eta bidali behar duzue. Bi aukera dituzue: interneten bidez izena ematea, www.gipuzkoa.net/oporraldi izeneko web orrialdean edo Bergarako Gazte Informazio Gunera jo dezakezue.

GUREGAIK/ IKASKETA-BIDAIK

Liburuak laga eta bidaiarako egun batzuk

AINTZANE IRIZAR

Aste Santu ingurua ikasketa-bidaiekin garaia izan ohi da. Liburuak, apunteak eta ikasgelak alde batera laga, eta motxilak eta mailetak gainean hartuta egun batzuk hartzen dituzte ikasleek, bidaiatzeko.


Bergarako ikastetxeek ere bidaia bat baino gehiago antolatzen dute. Batzuk dagoeneko itzuli dira bidaiatik. Beste batzuk, berriz, motxila prestatzen arituko dira honezkeroko.

Aranzadiren kasuan, bi mailako ikasleek egiten dituzte ikasketa-bidaiak. Batxilergoko lehen mailako ikasleak itzuli dira dagoeneko. Hiru egun egin zituz-

ten kanpoan: Parisen izan ziren, eta hirugarren egunean Eurodisneyra joan ziren. Aranzadiko DBHko laugarren mailakoak Aste Santu ostean Jaca, Bartzelona eta Saloura joango dira.

Ipintza Institutuko laugarren DBHkoek ere egin dute ikasketa-bidaia dagoeneko. Saloun izan ziren joan den astean, baita Port Aventura, Bartzelona eta Zaragoza bisitatzen ere.

Mariaren Lagundia Ikastola-koek ere ez dute, ez, etxean gertatzeko asmorik. Maiatzean egingo dute ikasketa-bidaia, maiatzaren 13tik 17ra, hain zuzen ere. Oraindik ez dute zehaztu, baina Tarragonako kostaldera joateko asmoa dute DBHko laugarren ikasturtekoek.



ARTXIBOA

Hainbat toki aukeratu dituzte Bergarako ikasleek ikasketa-bidaietarako.

LOTSABARIK/ Igor Ibarguren

“Txistek egiteko erraztasuna daukat”

AINTZANE IRIZAR

Telebistako aurkezle izatea amesten zuen Igorrek txikitan, kamera aurrean egoteak erakarri egiten zuelako. Aurkezle lanetan ez, baina kamera aurrean, behintzat, jarri dugu guk Igor:

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Telebistako aurkezle; asko erakartzen ninduten kamerek eta kamera aurrean egoteak.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Espero dut lan ona edukitzea, ondo bizitzeko aukera emango didana, eta familia osatzea.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?

Ordenatua izateko eta lan asko egiteko.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Ez daukat taktika berezirik; normalean, aguantatu egin behar izaten dut, eta esaten didatena egin.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehenetasuna?

Osasunari, batez ere; eta familia ondo ikusteari, pozik, disgustu barik.

• Zure bertute bat?

Beharbada, ez da oso ondo egongo nik esatea, baina nik uste dut grazia daukadala, txistek egiteko erraztasuna daukat.

• Eta hutsune bat?

Oso desordenatua naizela; sinestezina da zelako desordenatua naizen. Horregatik errepikatzen didate behin eta berriro gurasoek ordenatua izateko.

• Zerk amorratzen zaitu?

Hipokrisiak...

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Irribarreari eta begiei.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Nahiko nuke horretarako taktikaren bat edukitzea!

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Uf! Hori *top secret* da!



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBH (4. maila) • ZALETASUNAK: Interneten nabigatzea eta musika entzutea • LIBURU BAT: ‘Las aventuras de Tom Sawyer’, Mark Twain-ena • FILM BAT: ‘Star Gate’ • MUSIKA TALDEA: The Corrs • KIROL TALDEA: Ez zaizkio batere gustatzen kirolak

TIRABIRAKA/ Gorka Ortega



GORKA ETA JPP02 ©



BERGARA
Leire Ugalde
Apirilaren 7an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Amaia Santorkuato
Martxoaren 28an 9 urte.
Zorionak! Etxeokak;
batez ere Maider.



BERGARA
Asier Labaien
Martxoaren 28an
urtebetetzea. Zorionak!
Maider eta Amaia.



BERGARA
Peli Iturrikastillo
Martxoaren 29an
urtebetetzea. Zorionak!
Familiakoak.



BERGARA
Iban Iturrikastillo
Apirilaren 6an
urtebetetzea. Zorionak!
Familiakoak.



BERGARA
Julen Martinez
Apirilaren 8an 4 urte.
Zorionak! Nahia, gura-
soak eta aitona-amonak.



BERGARA
Nekane Elkorro
Martxoaren 28an
urtebetetzea. Zorionak!
Etxeokak eta Ibane.



BERGARA
Mikel Alberdi
Apirilaren 7an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Xabi Azpiazu
Apirilaren 5ean 3 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Idoia Narvaez
Martxoaren 26an 13
urte. Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Asier Lopez
Apirilaren 9an urtebete.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Pedro Jimenez
Martxoaren 29an 36
urte. Urte askotarako!
Emaztea eta alaba.



BERGARA
Iker Poza
Martxoaren 30ean 2
urte. Urte askotarako!
Etxeokak.



ELGETA
Nerea Sarasua
Martxoaren 30ean 22
urte. Zorionak morroxka!
Etxeokak eta lagunak.



ELGETA
Uxue Gamarra
Apirilaren 5ean 5 urte.
Urte askotarako!
Elgetako laguntxoak.



ELGETA
Mirian Ormaetxea
Apirilaren 5ean 8 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



BERGARA
Julen Marquez
Apirilaren 2an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Iraia Otxoa
Apirilaren 5ean 18 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Iban Moreno
Martxoaren 31n 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, asteleheneretan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxungo

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazu ezusteko ederra! Doan!

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK
MOKETA ETA SINTASOLA
IZTUKU ESPONJATUA

PAPER PINTATUAK
HAREA ZORROTADA
IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein kale edo plazatan daude farola hauek?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Katalpa

Catalpa bignonioides

MAITANE ARIZABALETA

Neguan hostoa galtzen duen tamaina ertaineko zuhaitza. Hostoak tamaina handikoak dira, bihotz formakoak eta puntadunak. Ekaina eta uztaila bitartean loratzen da eta loreak panikula zuzenetan sortzen dira eta zuriak dira. Fruituak (leka luzeak), aldiz, azaroa eta abendua bitartean heltzen dira eta zuhaitzean hurrengo udaberri arte iraun dezakete.

Jatorriz amerikarra den zuhaitz mota hori apaingarri gisa erabiltzen da herrietako pasealeku, plaza eta parkeetan. Esate baterako, Bergaran, Ariznoa plazan (epaitegi aurrealdean) aurki ditzakegu.

Bere sorlekuan haziak eta lekak herri medikuntzan erabiltzen dituzte, haziok eta lekok ezaugarri antiespasmodikoak eta lasaigarriak dituzte-eta. Enborren azalak, bestalde, barne heste-zizareei aurre egiteko ezaugarriak ditu.

Bukatzeke, eta bitxikeria moduan bada ere, elizak irudikatu izan du Adan eta Eva pertsonaia biblikoek gorputz biluzien zenbait atal gordezkeko zuhaitz mota horretako hostoak erabiltzen zituztela.

“Jatorriz amerikarra da eta apaingarri gisa erabiltzen da pasealeku, plaza eta parkeetan”



ARGAZKILARIA

GALDEDEBALDE

- 1.** Zenbateko finantza zamari egin beharko dio aurre Udalak aurtun?
A/ %16.
B/ %12.
C/ %1,2.
- 2.** Zein izan da Udalak deitutako Pazkoko kartel lehiaketako irabazlea?
A/ Martin Murgizu.
B/ Vanne Pedraza.
C/ Alberto Illescas.
- 3.** Noren aurka galdu zuen Ander Berraondok lehen mailako eskuz banakako pilota txapelketan?
A/ Imaz.
B/ Esain.
C/ Patxi Ruiz.



Super BM emandako 60 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOSEBA CARNICEROrendako izan da 60 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Joseba! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Justo Garate eta Honoris Causa Doktore titulua / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Carbonell oliba olio

0,4º, litro bateko botila.

2,58€

429 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak
943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

BERGARAN BULEGO BERRIA



BERGARA Ibargarai 3. 943 76 97 97
LEGAZPI Santikutz 8. 943 73 05 25

10 URTEKO ESPERIENTZIA!

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, unxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



Irala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Eguaztena / 2002ko martxoaren 27a / 107. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Aurtengo udal aurrekontua onartu zuten eguenean: denetara, 2.300.735 euro

AINTZANE IRIZAR

EAJ, EA eta Batasuna alderdien aldeko botoarekin onartu dituzte aurrekontuak. PSE-EEko Juan Benítez izan zen aurkako botoa eman zuen bakarra. 2.300.735 euroko aurrekontua onartu dute, eta 65.751 euro gehiagoko sarre-
rak aurrez ikusi dituzte.

Joan den asteko eguenean, martxo osoko bilkuran, onartu zituzten 2002ko udal aurrekontuak. Bederatzi zinegotzik parte hartu zuen bozketan, eta bakarrak eman zuen aurkako botoa, PSE-EEko Juan Benítezek, hain zuzen. Benítezek adierazi zuen, bere ustez, herri bat gidatzea aurrekontua gestioatzea baino askoz gehiago dela: "Obrak egiten ari gara, baina herririk ez", gaineratu zuen. Bestalde, alkateari Udala gidatzeko autoritate morala ukatzen diola adierazi zuen.

EAJko ordezkari Jose Angel Zabalok, berriz, astebetean bost aurrekontu proposamen jaso dituztela salatu zuen, batetik bestera aldaketa nabarmenak dituztenak. Zabaloren ustez, horrek adierazten du fundamentu gutxi



ARTXIBOA

Gizarte Etxeko lanendako aurrez ikusi dute inbertsiorik nabarmenena.

dagoela. Mireia Unamuno alkateak aldaketen berri eman, eta adierazi zuen aldaketa bakarra egon dela aurrekontuetan.

SARRERAK, GASTUEN GAINETIK

2002ko aurrekontuetan, gastuak baino sarrera gehiago izatea aurrez ikusi du Udalak.

2.366.486,85 euroko sarrerak eta 2.300.735,22 euroko gastuak, hain justu, aurrez ikusi dituzte. Horrela, aurretik dagoen 65.751,14 euro-

ko zorra estaliko litzateke. Bestetik, aipatzekoa da, ohi bezala, Hirigintza batzordeak izango duela aurrekontu handiena.

Aurrekontua batzordeka

| | |
|-----------------|-----------|
| Giz. Ongizatea | 434.885 € |
| Hezkuntza | 76.084 € |
| Hirigintza | 689.355 € |
| Komunit. Ongiz. | 80.687 € |
| Kultura | 358.104 € |
| Kirolak | 101.253 € |
| Liburutegia | 38.237 € |
| Euskara | 39.262 € |
| Nekazaritza | 103.631 € |

Inbertsio nagusiak

| | |
|--------------------|-----------|
| Gizarte Etxea | 943.589 € |
| 30 HGako urb. | 142.846 € |
| Olaran urbaniz. | 104.539 € |
| Antiguan urban. | 69.116 € |
| Anbulator. berreg. | 67.000 € |

HERRITARREN HITZA / Beñardo Kortabarria • Kazetaria

Igerilekuarentzako zuloa

S an Joseko zubian Errioxan izan ginen lagun batzuk. Baina ez pentsa ohiko Bastida, Biasteri, Haro eta abar bisitatu genituenik. Oraingoan gure asmoa ez zen Errioxara sarri samar eraman gaituena izan. Egunkarian iragarkia irakurrita joan ginen hara, oporretarako balizko toki bat aurrez ikuskatzera. Badakizue, hobe sorpresarik ez izatea.

Cornagora joan ginen, Errioxa Beherera. Kokatzen laguntzeko, herri hori Nafarroak, Errioxak eta Soriak bat egiten duten inguruan kokatua dago, Fitero eta Arnedo artean, noizbait dinosauriak ibili ei

ziren mendietan. Parajea ezagutzen duenak jakingo du: basamortu hutsa da. Noizbaiteko erreken arrastoak badira han, baina errekarik ez; eta ikusi ahal izan genuen zuhaitz bakarrenetarikoa aterpe artifizial batean gordeta zuten, "zuhaitz fosilizatua" zioen kartelaren ondoan.

Cornago herria bera menditontor batean dago, gutxi gorabehera 760 metroko altueran. Herriak goialdean



"Umetatik askotan agindu izan zaizkigu igerilekuak"

sekulako -eta toki hartan, zentzugabeko- gaztelua du, iragan aberatsagoaren erakusgarri. Taberna pare bat badaude, baina, aurrez enkargatuta ez bada, bazkaltzeko tokirik ez. Jakina, goardia zibilaren kuartelilloa ere badago -fosilizatutako zuhaitzaren eboluzioa ikertzeko

beharbada-. Hango biztanleak 790en bat ei dira eta, nahi duzue sinistu!, sekulako igerileku publikoak dituzte.

Hau da, errespetu osoz esanda: herria kaka bat da, lau katu bizi dira, udaran urik apenas izaten dute... eta pizina publiko ederrak dituzte.

Antzuolako oraingo udalari gutxi gorabehera urtebeteko agintaldia geratzen zaio, nahikoa denbora umetatik askotan agindu izan zaizkigun igerilekuak errealitate bihurtzeko. Total, zulo bat eginda dagoenez, beste bat egin eta kitto! Baina oraingo honetan igerilekuak egiteko izan dadila! Horregatik bada, ez du inporteta -behintzat niri ez- urte batzuetarako hipotekatuta geratzea.

LABUR

Arrolak batzar orokorra egin zuen eguaztenean

Joan den asteko eguaztenean egin zuen Arrola mendi taldeak urteko batzar orokorra.

Aurreko urteko balantzea eta aurtengorako asmoak aztertzeaz gain, batzarkide berriak aukeratzeko asmoa zuten. Bost batzarkidek lagako dute kargua Aste Santu ostean. Oraingoan, baina, batzarkide bakarra sartu da, Maria Dolores Arbulu. Orain, beste lau kideren beharrendaude Arrola elkarteak; nahi duenak zabalik dituzte ateko batzarkide izateko.

IRAKURLIAREN TXOKUA

PINTADAK HERRIKO HORMETAN

Antzuolan azaldutako pintaden gainean gure iritzia plazaratu nahi dugu:

1) Protestatzeko badaude arrazoiak: Garzonen atxiloketa eta ilegalizazioak ez dira tontokeri bat eta ulertzekoa da afektatuta daudenen amorrua.


2) Denok ez dute/dugu iritzia komunikatzeko aukera berdina, beraz, ez gauden medio *extraofizialak* erabiltzearen aurka.

3) Medio *extraofizial* horien erabilerak hainbat irizpide kontuan izan behar ditu: kalte ekonomiko edo estetiko gutxien eragingo duten moduak erabiltzea; herritarrak ahalik eta gutxien molestatzeko; bestelako efektuak aurrikusi eta ekiten saiatzea. Ez da berdinean egun batzuetara kendu daitezkeen paperak ipintzea edo harrizko etxe bat pintatzea. Zentzu honetan, pintaden egileen salaketa-helburua agian beteko zen, baina ebitatu zitekeen efektu negatiboa eragin dute: herritar asko haserretu da, eta horrela ezin da herritarrengandik ulermen eta el-kartasun handiagoa lortu. Gainera, pintada gutxiagorekin berdinean adierazi zitekeen esan nahi zena, ordu-an, zergatik hainbeste? Ba-dakigu neurri eta balorazio kontuak subjektiboak direla; esan nahi duguna da balore positiboa dela norbere eskubideak gauzatzeko besteak ere nolabait kontuan hartu eta ahalik eta modu onenean biak konbinatzea. Pintadetak tiro-dianak tokiz kanpo daude, ez dute informatzeko ezta salatzekeko helbururik. Garzonen erabakiekin ados ez gauden bezala, dianekin egindako mehatxuen kontra gaude.

4) Bestalde, uste dugu irtenbide aproposena pintadak Udalak ezabatzea dela.

ANTZUOLAKO ZUTIK

KIROLA



Asier Muxika irabazle Uzarragan

Uzarragako Igoeraren 28. aldia jokatu zuten domeka goizean gazte mailako txirrindulariek. Muebles Ordizia taldeko Asier Muxika txirrindulariak irabazi zuen domekako proba, eta talde horrek berak eraman zuen taldekako lehen saria ere. Lasterketa gogorra izan zen, eta lasterketa 116 txirrindularik hasi zuten arren, 65ek besterik ezin izan zuten bukatu./A.I.

Antzuolako atletak fin ibili ziren Oñatiko duatloian zapatuan

Zapatuan Oñatin jokaturako duatlo lasterketan emaitza onak lortu zituzten Antzuolako atletak.

Aitor Larrea zortzigarren sailkatu zen, ordubete, 48 minutu eta 18 segundoko denborarekin, irabazlearengandik minutu bat eta 54 segundora. Iker Larrea hamalagarren, 1:49:12ko denborarekin; Aitor Peñagarikano, berriz, Ikerrengandik bost segundora sartu zen, 15. postuan.

Euskal Pirinioetara joateko irteera antolatu du Arrolak

Apirilaren 13an eta 14an, euskal Pirinioetara joateko irteera antolatu du Arrolak, Linzara, hain zuzen. Joan nahi dutenek apirilaren 3an edo 9an eman beharko dute izena Arrolaren egoitzan, 19:00etatik 20:00etara.

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 3 Orioko 2 (Gazteak)
Landetxa 1 Antzuola 3 (Kadeteak)

PILOTA

Udaberri Saria

Bergara-Olalde (eskuz kad.) . . . 13-22

Zumarraga-Olalde (eskuz nag.) . 22-16

Hernani-Olalde (paletaz) 27-35

Gipuzkoako Txapelketa

Gazteleku-Olalde (infantilak) . . . 15-18

Agirre eta Biteri txapelkunorde Udaberri Sarian

Joan den zapatuan jokatu zuten Olalde pilota elkartereko Agirrek eta Biterik Udaberri Sariko finala, Zumarragako bikotearen aurka. Txapelketa bikaina egin dute, baina ezin izan ziren finalean gailendu; 16-22 galdu zuten.

BOTEPRONTOAN/ Aritz Berraondo · Pilotaria

“Egubakoitzeko partidura gogotsu joan nintzen; argi neukan ahal nuen guztia eman behar nuela”

Joan den egubakoitzean jokatu zuen Berraondok eskuz banakako txapelketako lehen partidua. 22-4 galdu zuen Esainen aurka. Bigarren partidua apirilaren 28an jokatu du, Xabier Imazen aurka; partidu hori irabaziko ez balu, bigarren mailara jaitsiko litzateke.

Zure helburu nagusia maila ez jaistea zela adierazi zenuen. Hurrengo partidua, hortaz, derrigorrez irabazi beharrekoa duzu.

Bai, horixe zen nire helburu nagusia, lehen partidua irabazi eta lehen mailan jarraitzea. Baina Esainen aurka lehen partidua galdu ondoren, asko korapilatatu zaizkit gauzak.

Eskuak oso ondo ez zenituela adierazi zenuen. Horrek izan du eraginik?

Ez. Egubakoitzeko partidura gogotsu joan nintzen; argi neukan ahal nuen guztia eman behar nuela. Egia da eskuak ez neuzkala oso ondo, baina hori ez zen partidua galtzeko arrazoa izan.

Emaitzari begiratuta aldea nabarmena da; zein izan zen emaitza horren arrazoa?

Iñaki Esainek oso partidu ona egin zuen, eta esan ohi den moduan, txapelkun handi baten moduan irabazi zuen partidua. Erritmo bizia ezarri zion partiduari Esainek, eta nik ezin izan nion erritmo horri eutsi. Sekulako pilotadak eman zituen, eta horrela irabazi



zidan partidua. **Bigarren mailako txapelketa izan zinen iaz. Horrek eragin dizu presiorik?** Ez, ez dut uste presiorik eragin didanik horrek; oso ezberdina da lehen mailan edo bigarren mailan jokatzeko. **Hurrengo partiduan, behar bada, sentituko duzu presioa; izan ere, bigarren mailara jaisteko arriskua hor dago.** Ez dut uste presiorik sentituko dudarik, baina urduritasuna bai. Askok jokatzen dut partidu horretan, eta urduri egongo naizela uste dut. Sekula ez dut Imazen aurka jokatu, baina lehengoan Patxi Ruizen aurka jokatu zuen partidua ikusita, ez da aurkari erraza izango Xabier Imaz.

Igor eta Txomin

Margoak orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131 BERGARA 609 150 164

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17 ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta industriarako pinturak

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21 Tf. eta faxa 943 76 64 07 Poltsikokoa 616 277 999 ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua eta barnizaketa

Kalegoi 21 Tf. eta faxa 943 76 64 07 Poltsikokoa 616 277 999 ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Eguaztena / 2002ko martxoaren 27a / 93. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Haurren danborradia, 2003ko danborrada berezira bidian jarri daben lehen harrixa

OXEL EROSTARBE


Jai Batzordiak ia zehaztuta dauka aurtengo Ferixa Nagusietako egitarau osua. 2.003ko danborrada berezixa gertatzeko bidian, neska-mutikuen danborradia izango da aurtengo berezitasun bat. Elgetako Ereserkia danborradara moldatzen be hastekuak dira.

Aurtengo jaixak gero eta gertuago dare. Bariku arratsaldian, danborrada aurrera eruateko ardurria dauken taldekuak prentsaurrekua emon zeben, euren asmuak herritarrei azaltzeko.

Iosu de Vega, Alex Arantzabal eta Iosu Arantzabal dira danborradia aurrera eruateko ardurria daukenak. Epe motzera, aurtengo lehenengo aldiz egingo dan haurren danborradia bihar dan moduan gertatzia da euren helburua. Honetarako, apirillaren 5ian ekingo dotse danborradia gertatziari izena emon daben 82 neska-mutikuekin. Haurrei nagusiek jotzen dittuen pieza gehixenak erakusteko ahalegiña egingo dabe. Hala eta be, Alex Arantzabalek esan zoskunez, neska-mutikuekin trunkil jua nahi dabe, "Helburua 2.003ko danborradarako umiak gertauaz juatia da. Izan be, bertan nagusixak eta umiak batzia da asmua. Ikasten dittuen piezak, gutxiago izatia izan leike, baiña ikasten dittuenak bihar dan moduan jo deixen ahaleginduko gara".

Aurten ez da nagusixen danborradarik izango jaixetan. Indarrak umien danborradara biderratu dittue eta nagusixei deskantsua emoteko ordua be bazala pentsau dabe antolatzailliek. Beste arrazoi bat, epe ertaiñerako, datorren urterako hain zuzen, gertauko daben danborrada erraldoia da. Izan be, 2003ko danborradia oso berezixa izango da. Adin guztixetako jendiak hartuko dau bertan parte eta Elgetako Ereserkia danborradara doñuekin entzuteko aukeria izango dogu.

Alfredo Gonzalez Chirlaque izango da Elgetako Ereserkia danborradarako moldatuko dabana. Alfredo Bergarako Banda eta Orkestako zuzendarixa da. Hilla-



Prentsaurrekua eman zeben udaletxian Elgetako danborradako arduradunek.

bete inguru biharko dau 1.993an egin zan ereserkiandako musika konposiziño barrixa egitteko. Uztaillerako Elgetako danborra-

dako arduradunei grabaziño bat emotia da asmua. Ereserki moldatu barrixa entzutiaz gain, izan leike danborradian ibillaldixa eta



Haurrak bakarrik ez, nagusixak be baserittar jantziko die jaixetako eguenian.



ALFREDO G. CHIRLAQUE/BERGARAKO BANDAKO ZUZENDARIA

"Gure lana Elgetako Ereserkia erritmo biziko martxara egokitzea izango da"

Elgetako Ereserkia danborradara moldatzeko ardurria zeuria izango da?

Bai. Danborradian ardurria daukenak egin doste hau enkarguau. Elgetako Ereserkiak izaera sendua dauka, himno tankerakua. Gure lana martxara egokitzia izango da. Martxak izaera alaiagokoak dira, jai girokuak. Herrittaren artian erraz zabaltzeko modukuak. **Ereserkiak musikiaz gain**

letria be badauka, martxiak halan eukiko al dau?

Ez. Egingo dogun martxiak ez dau letrarrik izango. Hala eta be, jendiari musikia errezagartuko jako eta herrittarrak 1993an egindako Ereserkira gerturatzeke be balixoko dabala pentsatzen dogu.

Martxia egitteko zenbat denbora biharko dozu?

Hillabete inguruan eginda egongo da. Izan be, base musi-

danek batera jotzeko lekua be aldatu biharra izatia. Oin arte ekitaldi nagusixa plazan egin dan arren, 2003ko danborradan par-

te hartuko daban jende kopurua kontutan eukita danak plazan sartzia oso zailla izango dala aurreikusten dabe. Plazan biharriro kiroldegiko kantxan egiatia aztertzen dabit. Bertan danborradan parte hartuko daben 300 pertsonak eta ikusliak sartzeko arazorik ez litzake egongo.

JAIXETAKO EGUEAN DANOK BASARRITTAR

Iaz Elegante Eguna antolatu zaben Jai Batzordekuak jaixei hasieria emoteko. Aurten beste proposamen bat egingo dabe.

Eguenian erromerixa girua egon deilla nahi dau Jai Batzordiak. Hori dala eta, basarritar edo erromerixa giroko mozorruak gertauaz juateko deixa egin nahi dotse herriko kuadrillei.

Eguenerako erromerixa girua bultzatzeko ekitaldixak antolatu dittue. Etxakit taldian kontzertua izango da. Egitarau guztixa ixa lotuta dauke eta laster emongo doskue honen barri.

kala eginda dago; eta erritmoz aldatzia, martxa erritmua emotia da kontua.

Elgetako martxia zein eratakua izango da?

Erritmo biziko martxia izango da. Izaera alai eta bizkorrekua, holan jendiak errezagartuko ikasiko dau eta.

Uztaillerako grabaziño bat egingo dogu, lehenbailehen elgetarrek martxia entzun deixen.

TELEBISTA BADATOR

Uruburutik zabalduko da GOITB herriko telebista guztietara

Aurreko egunean, Uruburuko bizilagunek batzarra egin zuten. Batzarraren helburua honakoa izan zen: GOITB-ko seinale-zabaltzailea euren teiltuan jartzeko Udalak egindako proposamenari zein erantzun eman erabakitzea.

Bizilagunek seinale-zabaltzailea jartzea onartu zuten. Horrela bada, Uruburuko etxebizitzetatik zabalduko da GOITB herriko telebista guztietara. Oraindik ez dago erabakita

GOITB zein katetan ikusiko den; teknikariek esan digutenez, hori jakiteko seinale-zabaltzailea kokatuta egotea derrigorrezkoa da eta.

OPORREN OSTEAN GOITB IKUSIKO DA
Eguaztenean, Gobernu Batzordeak Uruburuko bizilagunei Udalak proposatu dien hitzarmena onartuko du. Ondoren Udalak eta Goienak telebistaren inguruko hitzarmena sinatuko dute. Bi aldeek esan digutenez gaia nahi-

ko aurreratuta daukate.

GOITB Elgetan ikusteko azken pausoa teknikariei seinale-zabaltzailea Uruburuko etxebizitzetan jartzeko agindua ematea izango da. Teknikariei abisua eman eta hamar egunera GOITB ikusiko da.

Teknikariek GOITB zein katetan ikusten den erabakitzen dutenean emango dugu horren berri. Badirudi, oraingoan, laster Elgetan ere GOITB ikusiko dugula ziurta dezakegula.



Urteurrenean giro paregabea

Zapatuan izan ziren Gaztearen seigarren urteurreneko ekitaldi nagusiak. 20 lagun elkartu ziren bazkarian giro ederra egon zen eta egun osoan holaxe jarraitu zuen, jaiak goizaldera arte iraun zuen eta.

Gauean ere, jende ugari batu zen Gaztetxean izan zen kontzertuan.

Egun osoko jai honekin amaiera eman diote gazte txekoei seigarren urteurrenari. Aurrerantzean ere ekintzak antolatzen jarraitzea da asmoa./O.E.



Elgetan ere nor bere aldetik Aberri Egunean

EAJ-EAk eta Batasunak ez dute Aberri Eguna batera ospatuko. Ikurrina altxatu eta gero, Udalbiltzak deitutako Gernikako ekitaldira joango dira goizean EAJ-EAkoak. Batasunak -hark ere Udalbiltzak deituta- Ikurrina altxatuko du udaletxean 12:30ak aldera, eta saldak eta txorizoak banatuko dituzte. Aberri Egunean, bakoitzak bide bat hartuko du, Udalbiltzan moduan. /O.E.

ASTE SANTUA

Bariku Santuan prozesioa egingo dute

O.E.

Aste Santua dela eta, elizkizun bereziak gertatuta dituzte dagoeneko parrokiakoek. Aurten ere, Bariku Santuan, prozesioa egingo dute herriko kaleetan. Jesus nazaretarraren, Doloretako Ama Birjinaren eta San Juanen irudiak aterako dituzte kalera.

Elgetako Parrokiak Aste Santurako antolatu dituen elizkizun bereziak, aurreko domekan hasi ziren. Izan ere, Erramu Eguneko meza egin zuten orduan.

Martxoaren 28an, Eguen Santua ospatuko dute. Elizkizuna arratsaldeko 17:30etan izango da.

Martxoaren 29an, Bariku Santua, goizean hasiko dira ekintzak. Goizeko 09:00etan gurutze bidea egingo dute elizan. Arratsaldeko 18:30etan meza berezia izango da. Meza ostean prozesioa egingo dute herriko kaleetan. Parrokian dauden zenbait irudi aterako dituzte kalera. Besteak beste, Jesus nazaretarraren, Doloretako Ama Birjinaren eta San Juanen irudiak izango dira aterako dituztenak.

Martxoaren 30ean, Zapatu Santuko elizkizuna izango da. Gaueko 22:00etan parrokiari izango da elizkizun nagusia.

Martxoaren 31n, Pazko domekako elizkizuna izango da eguerdiko 12:00etan.



Aurten ere zenbait irudirekin prozesioa egingo dute herriko kaleetan zehar.

ARTXIBOA

LABUR

Eguazteneko osoko bilkurak bake epailea nor izan daitekeen proposatuko du

Gero, Udalak egindako proposamena Justiziako Auzitegi Nagusiak onartu beharko du. Aurrekoan bezala Pedro Mari Ubera eta Arantxa Gorritxategi izan dira aurkeztu diren elgetarrak. Baina aurten gainera Hernaniko bizilagun bat ere aurkeztu da.

Eguaztenean, gaueko 21:15etan izango den osoko bilkuran, erabakiko da Elgetako bake epaile izateko Justiziako Auzitegi Nagusiari Udalak proposatuko diona nor izango den. Normalean Udalak proposatzen duena aukeratzen dute Auzitegian.

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

ERRETRATUZAHARRA

Antzuolako
Atletismo
Taldea, 1958

Honako argazki hau 1958. urte ingurukoa da. Denbora laburra zen atletismo talde hori sortu zutela Antzuolan. Ez ziren atletismo pistetako txapelketetan ibiltzen, kros txapelketetan baizik. Inguruko herrietako lasterketan parte hartzen zuten, batez ere: Oñatin, Aretxabaletan, Bergaran, Arrasaten... Baina beste kros lasterketa entzutetsu batzuetara ere joan izan ziren, Lasartekora, esaterako.

Jose Luis Errasti zen entrenatzailea, eta hark azaldu digunez, nahiko emaitza onak lortzen zituzten, talde ona osatzen ei zuten. Taldeka, batez ere, emaitza onak lortzen zituzten.

Bestalde, adierazi digu atletismo pistarik ez zuten Antigua inguruan entrenatzen zirela. Antigua eta San Blas artean ibiltzen ziren korrika. Gauzez entrenatzen ziren, lanetik irten eta gero; eta entrenamendu saioaren ostean, Antiguako tabernan elkartzen ziren tragoxka bat hartzeko.

Badirudi argazki hau Arrasateko lasterketan ateratakoa dela, eta 17 bat



urte izango zituzten argazkikoek. Hauexek agertzen dira argazkian, ezkerretik eskumara: Jose Luis Errasti, Julian Errasti, Luis Mari Jauregi, Jesus Bareño eta Iñazio Larrea. Makurtuta, Jabier Arregi.

Argazkia: María Teresa Errasti

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK


Ermitaren
kanpandorrea
geratzen da

Badira 24 urte San Bartolome ermita bota zutela; 1978. urtean bota zuten. Eguzki auzoko urbanizazio lanengatik bota zuten baseliza, Berriotxo eskolarekin batera.

Oroigarri moduan, ermita egon zen tokian kanpandorrea dago. Hori, baina, ez da San Bartolome ermitaren jatorrizko tokia. Izan ere, hilerriaren inguruan zegoen hasieran San Bartolome ermita.



1960 San Bartolome ermita 1978an bota zuten. Argazki horretan ondo ikus daiteke kanpandorrea, gaur egun hantxe dagoena.



2002 Eguzki auzoko aurreko aldean, lorategi txiki baten barruan dago gaur egun San Bartolome ermitako kanpandorrea.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitriloak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegiarako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia


- Ateak
-
- leihoak
-
- Horma-
armairuak
-
- Tarimak
-
- Parketak
-
- Sukaldeak



Ate irristagarriak

Neurrira
ebakitako
tableroak

-
- Apalak
-
- Kajoiak
-
- Zokaloak
- Moldurak
- Sarrailak
-
- Manilak
-
- Egurrezko
objetuen
pintaketa




AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 01 24

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA





Liderrak gara hainbat esparrutan:
esfortzuan, dedikazioan, lidertzan eta arrakastan

Multiópticas, liderrak zerbitzu optikotan
Etorri eta ikusi!

Multiópticas-ek Operación Triunfo-ko
kontzertuen bira aurkezten du

R.P.S. 164/99

MULTIOPTICAS

LARRAÑAGA

Tel. 943 76 15 75
BERGARA

Tel. 943 79 29 95
ARRASATE